

# **Abegi euskaltegietako telefono-sistema**

*Sagrario Crespo*

*Gaur egun euskaltegietara informazio eske hurbiltzen direnak, askotan, ez daude prest bertan ordu asko pasatzeko eta gero eta lagun gehiago dira eskaera bereziak egiten dituztenak. Garai bateko ikastaro trinkoak badaude ere, gero eta gutxiago dira. Euskara ikasteko prozesua oso luzea da eta urteak eskatzen dizkio ikasleari. Aldi berean, gizartearen eskaera-maila gero eta handiagoa da: formazioa ez da inoiz bukatzen, aisia disfrutatzea ere lan bihurtu zaigu, familian. Oso lanpeturik bizi gara, eta hala ere, denari heldu nahi diogu. Bestalde, badaude ere maila polit bat lortu ondoren, klaseetara joateari uzten diotenean eta ingurua ez euskalduna edukita, berehala euskaraz hitz egiteko ohitura galtzen dutenak; edo lan berezietan ari direnak (ordutegi luzeak, txandakakoak, ez egonkorrak edo oso aldakorrak), eta euskara hobetzearen beharra sumatzen dutenak.*

Artikulu honen sarreran aipatutako eskaera berezi horiei erantzuteko asmoz hainbat eredu aztertzen hasi ginen, eta beste ikastaro bereziekin batera telefono-sistema aurrera ateratzea erabaki genuen. Hasierako urratsak egiteko Lakunza ingeles akademiako John Bradley-ren gomendioak oso baliagarriak suertatu zitzaizkigun. Haien eredia ezagutu ondoren geurera moldatu genuen eta, denborarekin eta praktikarekin batera, aldaketa handiak egin ere egin genituen.

98-99 ikasturtean bi ikaslerekin hasteko aukera izan genuen. Bakoitzak bere irakaslea zuen. Beraz, bi irakasle elkarlanean aritu ziren bi ikasle berezi hauen beharrei erantzun eta aldi berean sistemari forma eman nahian. Honek arazo handiak sortzen zituenez, horrelako eskaera berezia talde arruntekin uztartzea zaila zela ikusi genuen.

Hurrengo ikasturtean, iaz, autoikaskuntza-proiektuari heldu genion eta bertan integratzea egoki iruditu zitzaigun, zenbait ezaugarri eta kontzeptu komunean dituztelako. Adibidez, ikasleak lan handia egin behar du bere kabuz, taldearen babesik gabe; ikasleak berak markatzen du erritimoa; tutorearen egitekoa ere antzekoa da: proposamenak eta iradokizunak egingo dizkio baina erabakia, azken batean, ikaslearen esku egongo da. Gainera, autoikaskuntza-proiektu barruan egoteak asko lagundu digu denbora eta baliabideak jartzekoan.

## Saioen nondik norakoa

Sistema honetaz ezer ez dakien bati zer den galdetuko bagenio, segurue-  
na 906 zenbaki batekin lotuko luke: noiznahi deitu eta eduki formalak  
azaldu eta hauen inguruan ariketak egin.


Guk eskaintzen dugunak, ordea, ez dauka zerikusirik horrekin. Ikasleak  
aurretik hitzordua zehaztu behar du. Nahiz eta aukera zabala eskaini,  
aldez aurretik noiz deituko duen jakin behar dugu. Horretarako, ikaslea  
eta tutorea hilabetean behin elkartu eta hurrengo egunetako lana planifi-  
katzan dute, hau da, deiak egiteko egunak eta orduak adostu, hala nola  
egin beharrekoa.

Telefono-solasaldi bakoitzak ere gai jakin bat izango du eta ikasleak ari-  
keta edo lantxoren bat prestatu behar du telefonoz deitu baino lehen.  
Gainera, hizketan pasatzen dugun denbora hau oso gutxitan izango da  
adierazpide linguistikoaren inguruan.

Gure ustez, erritmo egokia astean 20 minutuko 2 dei izaten da; saio  
hauek nahikoa trinkoak izaten direlako eta gehiago luzatuz gero nekea  
nabaritzen hasten delako; eta astean bitan, saio bakoitzean zuzenketarako  
proposatutako ariketak egin ahal izateko. Dei batetik bestera komeni da  
egun bat gutxienez libre uztea, ariketak dakartzan lanak egin eta hurren-  
goa ondo prestatu ahal izateko. Hala ere, gehiago eskatzea baino sarriago  
gertatu zaigu astean saio bakar bat egin nahi izatea.

Saioak gauzatzeko, hau litzateke egin beharreko bidea:

.1:



Geroxeago ikusiko dugunez, saio bakoitzak hiru pauso ditu: deitu aurre-  
koa, telefonoz ari diren bitartekoa eta deitu ondorengoa. Deitu baino lehe-

nago lehenengo biak irakurriak eta landuak eduki behar dituzte, eta hirugarrenari ere begiratzea komeni izaten da, horrela, arazoren bat badago edo ariketa ulertzen ez badu irakasleak azal diezaioke egin beharrekoa.

Telefonoz ari garen bitartean proposatutako lan komunikatiboak egiten dira. Irakasleak berak deitzen du, gehienetan bere etxetik edo lantokitik. Deia zain dagoena ez da beti irakasle bera. Hauek aldatu egiten dira, eta irakasleak ez daki zeinekin hitz egingo duen. Honekin lortu nahi duguna da ahots, doinu eta hizkera desberdinak entzutea, solaskide bakarrarekin ez ohitzea. Gainera, irakasleok ere berehala ohitzen gara ikaslearen hizkerarekin, akatsekin, espresioekin eta dei gutxi batzuei erantzun ondoren, ahalegin handirik gabe, berehala ulertzen dugu irakasleak zer esan nahi duen. Hala ere, txandakatze hauek ondo antolatu behar dira, irakasleak sentitu behar du telefono-hariaren beste aldean dagoenak bada kiela zer egiten ari den, hurbil sentitu behar du, konfiantza eman behar dio eta ez die beti galdera berdinei erantzunarazten. Tutorea, aldiz, ikas-taroa irauten duen bitartean pertsona bera da, hau baita ikaslearen erreferentea eta haren prozesu osoaren berri duena.

Telefonoz ari garen bitartean azalpen gramatikalik ez diogu ematen, ez eta zuzenketarik egiten ere. Dena dela, batzuetan beharrezkoa izaten da, esaten ari dena ulertezina denean, tresna hori ezinbestean behar duenean edo esan nahi duenaren kontrakoa esaten ari dela sumatzen dugunean. Hizketaldia moztu eta azalpena eman baino lehenago beti saiatzen gara bere aldetik zuzenketa bultzatzen. Baina, batzuetan, eta benetan oztopo bat denean, ez dago beste erremediorik.

Irakasleak gauza guztiari aurre egiteko gai izan behar du: batzuetan irakasleek saioa ez dute prestatu edo eguneko lanaren ordezkirik ez duen beste zerbait planteatzen dute, irakle batekin oso ondo ateratzen dena beste batzuekin oso zaila da, eskaera berriei bat-batean erantzun behar zaie, irakasleak planteatutakoari egokitu, ordezkio ariketak eta proposamenak beti eskura behar ditu. “Boikota” gela arruntetan ere gertatzen da, baina hemen latzagoa da: irakasleak ez badu nahi, ezin dira 20 minutuak aurrera eraman. Pazientzia handia eta kemena behar da.

Saioa ematekoan irakasle arruntentzat salto handia da, zaila izaten da hasieran. Adibidez, gure printzipioetariko bat da ahalik eta gutxien hitz egitea eta askotan hau da ikasgelan gehien egiten duguna; edo irakasleok ez-ahozko hizkuntzaz baliatzen gara gauza asko ulertarazteko, baina telefonoz ari garenean ez dugu baliabide hori.

Saio hauek kontzentrazio handia eskatzen diote irakasleari: komunikazioa aurrera eraman behar du, irakle harritu, interesa piztu edo espero ez duen galdera egin, eta aldi berean zuzenketak eta hurrengo lanerako ideiak jaso egin behar ditu. Batzuetan gertatu izan zaigu eztabaida batean sartu eta beste lan guztiak alde batera uztea, bestetan lo egiteko zorian gelditzea ikaslearen berbaldiaren eraginez, edo zerbaiten inguruan lanean jarraitzeko aukera guztiak galtzea.

Bestalde ia noiznahi prest egotea eskatzen du, irakle hauek gehienetan oso lanpetuta baitaude eta askotan aldatzen dute ordutegia, beti muga batzuen artean. Honako arau hauei jarraitzen diegu:

- Bi egun lehenago abisatuz gero, aldatzeko aukera izango duzu.
- Egun berean, saioa galdu.
- Irakaslea zure deiaren zain egongo da; horregatik, egun batean baldin badakizu ezin izango duzula deitu, aurretik abisatzen baduzu deiaren data aldatzeko aukera izango duzu. Irakasleen disponibilitateen baitan.

Ondoren, telefonoa eskegi eta gero, zuzenketak eta azalpenak datoz. Saioa bukatu ondoren faxez edo e-mailez bidaltzen dizkiegu guk hartutako notak, azalpenak edo hauek non aurkitu, eta saioan atera den kontzepturen bat jorratzeko ariketak. Ikasleek berehala ikasten dute arau hau eta hutsuneren bat aurkitzen dutenean horrelaxe adierazten dute: “Ui! Zer esan duzu? Bidali mesedez!”

Baina hau ez da ikasleek egin behar duten lan bakarra; ariketan bertan beste bat ere proposatzen zaio. Ikasleak lanak egiten ditutenean, eta ariketak autozuzenketarako gida ez badu, berriro ere guri bidaltzen digu eta zuzendu ondoren bueltatzen zaio, proposamen berriekin beharrezko balitz. Hau dena gorde egiten da eta hurrengo tutoretzetan aztertu.

Ikasleak ez du sarerik, ezin da isilik gelditu. Ezinbesteko zaio aurretik gaia ondo prestatzea eta begiratzea, bestela zaila izaten da aurrera eramaten. Irakasleak egiten dizkion bat-bateko galderek ekidin nahi dute dena prestatuta egotea, baina makulu-hitzak, parafraasiak, eta beste hainbeste behar ditu askotan aurrera egiteko.

Ikasleentzat saio hauek gogorak izaten dira, eta hasieran bere ustean 20 minutuko elkarrizketa besterik ez denak, saioak aurrera egin ahala, lan handia eskatzen dio: prestaketa, zuzenketa, gaia sakonagotik jorratzea. Gainera, ez dago keinurik, ez du ikusten solaskidearen aurpegia, ez du ahozko hizkuntza ez den beste baliabiderik laguntza eskatzeko.

Gure helburua ez da telefonozko elkarrizketak garatzea soilik, baizik hizkuntza orokorrean, beraz, gure elkarrizketak ez dira oso arruntak izaten telefonoz ari garenean. Noizbait hirugarren pertsona bat erdian sartu bada, harrিতා geldituko zen: hizkuntza premiei buruzko hamar minutuko bazarizketak edo etxearen deskripzio zehatz-mehatz batek ez baitaude inongo harremanik egunero telefonoz egiten ditugun hitz-aspertuekin.

## **Nolako ariketak?**

Unitate hauek diseinatzerakoan, hasieran esan bezala, kontuan hartu genuen John Bradley-k ingelesa ikasteko egindakoa. Eskema berari jarraitu badiogu ere, produktua bestelakoa da; geure, ariketetan mintzamenaz gain, beste trebetasunak eta hizkuntza bera ere lantzen saiatu baikara, gaitasun komunikatiboa bere osoan garatuz. Autoikaskuntzaren bidetik daramagu, ez da bakarrik unean uneko konponketa egiteko, ikasteko modu bat da.

Jarduera hauek ikaslearentzat esperientzi mundutik eta interesetatik hurbilak izan behar dute, motibatzaileak eta esanguratsuak, berez atseginak eta lasaigarriak, eta ez bakarrik lortuko duten azkeneko helburu batengatik erakargarriak. Ikas-prozesuarekiko bakoitzaren ardura erraztu behar

dute, giro atsegina sortuz, ariketek bideratzen dituzten aurrerapenei jarraituz eta, aldi berean, estrategia berriak erabiliz. Ikaslearen autonomia eta autozuzenketa bultzatzen da eta ikas-estiloak kontuan hartzen dira, hala nola, bere itzaropenak, bere aukerak eta dituen usteak.

Klasea emateko moduak ere argia izan behar du ikasleentzat: garbi gelditzen da jarduera bakoitzaren helburua, ibilbide orokor batean duen tokia eta aurreko eta ondorengokoekin duen lotura, hala nola sortzen zaizkion arazoak konpontzeko mekanismoak.

Ariketa hauek 3 etapatan daude banatuta:

#### *Deitu aurretik*

Telefono-saio bakoitzean egin beharrekoa ikasleak ezagutzen du aurretik, saio hauetan erabiliko den materiala tutoreak egun batzuk lehenago helarazten baitio bai tutoretza-saioetan bai fax edo e-mailaren bidez.

Puntu honetan, gaian sartzeko lantxoak proposatzen dizkiogu: hiztegiari begiratu, testutxo bat irakurri, istoriotxo bat prestatu, berriak entzun, hausnarketa egin. Iraupen desberdina du, baina guztietan lan honen helburu nagusia gaia aldeztu aurretik ezagutzea izaten da prestaketa bideratzeko eta ondorengo lana errazteko asmoz.

Dena dela, hurrengo puntuan jasota dagoen informazioa ere irakurri eta prestatu behar dute aurretik, bertan aurkituko baitute saioa bideratuko duen galdera.

Beraz, ikasleak duen lana da saioa prestatzea: zer eskatu diogun, zer egingo duen, nola, zer forma erabil dezakeen...

Fase honetan ez diogu idaztea proposatzen eta gehienetan azpitrebetasunak jorratzen ditugu, edo gero erabil ditzakeen zenbait adibide eta baliabide eskaini.

Ikasleak bere egitekoaz eta horrek dakarkionaz konturatu behar du deitu aurretik.

#### *Telefonoz*

Ikasleak ariketa-orrria aurrean duela deituko du. Lehenengo minutuak agurtzeko eta “beroketarako” erabiltzen dira: aurretik egindakoa esan, bidalitako zuzenketa ulertu duen, egin beharreko lana argi duen, asteberkaera edo azkeneko gertakizunak komentatu eta abar.

Lehenengo kontaktu hau motza izaten da, berehala hasten gara ariketa bera egiten. Dena dela, batzuek ez dute fase hau behar eta deitu bezain pronto, zuzenean sartzeko dira dagokien rolean edo proposatutako lanean. Ikasle autonomoek egokitze-fase txikiagoa behar izaten dute dependenteek baino.

Jardueran ari garenean ere bi fase bereizten ditugu: ikasleak saioari buruz aurretik dakiena eta, bestetik, espero ez duen galdera: gaiarekin zerikusirik duen bat izan daiteke, antzeko lan bat egitea proposatu, testu-mota hori lantzeko bestelako zerbait kontraz. Batzuek telefonoa hartu baino lehenago, saioaren nondik norako guztiak aztertu eta idatziz erantzun posible dezente

prestatzen dituzte. Tutoretza-saioetan eskemen garrantzia aipatzen diegu. Hala ere, gehienek esaldietara jotzen dute. Hori dela eta, komeni izaten da espero ez duten lan bat proposatzea, bat-batean aurrera eramateko.

Telefonoz ez da zuzenketarik egiten, ez azalpen gramatikalik eskaintzen, ez behintzat zuzentasunik ezak komunikazioa oztopatzen ez duen bitartean. Ikaslea bere rolean sartuta dago eta hemen zuzenketak egiteak ez du zentzu handirik. Irakasleak entzun ahala apuntatzen ditu akatsak, landu beharrekoak, ikasleen gustuak eta iradokizunak... hurrengo saioetarako edo zuzenketarako kontuan hartzeko. Ikaslea zer eta nola esaten ari denari irakasleak erreparatu behar dio, bietan arreta jarritz, hizketaldiari jarraitu ahal izateko eta hobetu beharrekoa jasotzeko.

Lanek gehienetan eginkizun bat izaten dute: etxea garbitzeko agindu, nagusien aurrean akatsak justifikatu... Batzuetan adierazpide linguistikoren bat erabiltzea helburua izanik ere, ikasleak ez badu esaten ez dugu behartzen; bere baliabideak mugitu eta erabiltzen ditu eta denak dira onak.

Proposatutako lana egindakoan, hurrengorako eginkizun dagoena komentatzen da, zuzenketa bidaltzeko egon daitezkeen oztopoak, ariketaren gaineratik balorazioak, eskaera berezietarako tartea.

Ikaslearentzat 20 minutu hizketan telefonoan oso lan zaila eta neketsua da eta hasierako saioak benetan gogorak izaten dira: ez ahozko hizkuntza, aurpegiko espresioa, keinuak, eskuak ezin ditu erabili oreka-estrategia bezala, baina laguntza beste bide batetik datorkio: aurrean lasai eduki dezake prestatu duen guztia.

### *Deitu ondoren*

Deitu ondoren ikasleak bi lan osagarri izango ditu: berez unitateak proposatzen diona eta irakasleak bidaltzen diona. Aurretik emandako orrialdeetan deiarekin zerikusia duen ariketaren bat proposatzen zaio ikasleari: txosten bat idatzi, zerbait irakurri edo irratsaioren bat entzun. Lan hau irakasleari bidal diezaioke zuzentzeko edo beste une baterako gorde. Ahal den neurrian, autozuzenketarako gida ere proposatzen zaio. Deien arteko komunikazioa faxez edo e-mailez egiten da.

### **Zuzenketa-orria**

Lan hau osagarria da eta egindako hutsekin edo nabariak diren beharrein zerikusia du. Askotan bigarren lan hau ikasleak berak bideratzen du tutoretza- edo telefono-saioetan beraietan.

Azalpenak ere momentu honetan bidaltzen zaizkio. Ahal den neurrian, eskatutakoari erantzuna eman beharrean, erreferentzi liburuetan non eta nola argitu bere dudak azaltzen saiatzen gara, momentuko azalpena baino hurrengo zalantzak argitzeko bideak erakustea interesgarriago iruditzen baitzaigu.

### **Irakaslearen orria**

Irakasleak txandakatzen dira eta denek ez dute material osoa ezagutzen. Oso denbora gutxi egoten da saioa prestatzeko eta denak ez gaude berdin motibatuak zenbait gairekin. Horregatik, interesgarria iruditzen zaigu

irakaslearen orria ere egitea. Bertan ez da prozedurarik azaltzen, ikasleen orria argi baitago, baina bai zein den saioaren helburua eta ikaslearentzako lan espero gabeko eta bada ezpadako batzuk. Irakasleak ere bere sarea izanik errazago lan egiten baitu.

## **Materialgintzan**

Materiala osatzeko irizpideen artean bi dira nagusi: trebetasun guztiak eta testu-mota desberdinak jorratzea. Kontuan hartzen dugu zer egin behar duen: testu-mota eta testuinguru diferenteak. Gehienetan, ikaslea oso eroso egoten da erregistro bakarrean eta zaila izaten da beste batera eramatea; esate baterako, gehienbat elkarrizketa garatzen da, hori aldatu ahal izateko ikasleari ekoizpen desberdinak eskatzen zaizkio: ordenak eman, hitzaldia, irratiko berriak, ipuinak, laburpenak, azalpenak, deskripzioak, rol-jokoak...

Ariketak diseinatzeko, autoikaskuntzan dauden zenbait irizpide hartu dugu kontuan: instrukzioek garbiak izan behar dute, ulergarriak, erraz jarraitzeko modukoak, ikaslea bere kabuz ahalik eta gehien egitera eramango dutenak.

Ariketa hauen iturriak desberdinak izan dira, alde batetik ohiko taldeetan erabiltzen dugun material batzuk egokitu ditugu eta merkatuan dauden beste batzuk ere hartu ditugu. Hala ere, bai batzuei, bai besteei buelta eman behar zaie, horretarako ez baitaude prestatuak. Beste aldetik, Euskaldunon Egunkaria, Zabalik, HABE aldizkariak ere erabili ohi ditugu materiala sortzeko.

Unitateak proposatzekoan ezin dugu ahaztu lanak ikaslearentzat egokia izan behar duela: zentzuduna, zailtasun-maila onargarrikoa, aurretik emandako hizkuntza baliabideekin uztartzeko modukoa. Era berean, kontuan hartu behar dugu ikaslearen konfiantza, ikasketen aurreko esperientzia, ikasteko erritmoa, erakutsitako jarriotasuna, ezagutza kulturalak eta linguistikoak.

Jeneralean, ariketa solteak ez dira egiten, gai baten edo testu-mota jakin baten ingurukoak baizik. Askotan saio batean euskarritzat erabilitakoa hurrengo saiorako aprobetxatzen dugu: ez dira beti jarraiak izaten, batak ez du bestea baldintzatzen, baina, ordena errespetatzen bada, ikasleak prestatuago eta egokiago egingo du bigarrena. Normalean eginkizun baten ingurukoak izaten dira eta bi edo hiru saio gai edo baliabide linguistiko baten harikoak izan ohi dira. Saiatzen gara multzokatzen: *a* eta *b* parteak gai baten (lexikoa aprobetxatzeko) edo testu-mota baten inguruan; lehenengoan aztertu eta eman zenbait forma adibide gisa, bigarrenean ekoizpena eskatzen diogu.

Beste unitate berezi batzuk ere baditugu, datekin lotuta daudenak: inauteriak, sagardotegiak, San Sebastian eguna, hauteskundeak.

Ariketa batzuk lagun jakin batentzat badira ere, gehienak edozein ikaslearentzat baliagarri izaten dira, beti ere kontuan hartuta ikasleak oso desberdinak direla, eta denek ez dutela berdin lan egiten. Batzuek denbora dexente pasatzen dute hasierako lana egiten eta inoiz ez dute ondorengoa egiten, beste batzuek, aldiz, aurrekoari ozta-ozta begiratzen diote deitu aurretik eta askotan lana esplikatu behar zaie lehenengo momentuan.

Horregatik, komeni da beti eskema berari ez jarraitzea ariketak planteatzeko. Eskaera eta zailtasunak banatu egin behar dira, hala nola trebetasunak eta azpitrebetasunak ariketaren une desberdinetan planteatu.

## **Tutoretzak**

Sistema honen ardatz nagusietako bat da tutoretza-saioa. Ikaslearekiko harremana telefonoaren bidez izaten da, baina komeni da aldizka-aldizka berarekin batera eseri eta egindakoa eta egin beharrekoa baloratzea.

Ikasleak deitzen duenean zeinekin hitz egingo duen ez badaki ere, tutoretza-saioretara etortzen denean, badaki norengana jo. Tutorea du erreferentea, bere ikas-prozesuaren jarraitzailea eta biderik egokiena bilatzen lagunduko diona.

Tutoreak lehenengo saioan ikasleari sistema aurkezten dio eta ikaslearen hasierako diagnosia egingo du: zein dira ikaslearen beharrak (komunikazio-mailakoak zein hizkuntzarekikoak) zehazten lagunduko dio; nola ikasten duen, zertarako eta bestelako xehetasunez informazioa bildu; helburuak eta egin beharrekoa ere zehazten da.

Ikaslea sistema honekin lan egitera ohituta ez dagoenez, komeni izaten da bigarren tutoretza-saioa dei gutxi batzuen ondoren egitea. Honela ikasleak konfiantza gehiago izaten du eta lor daitekeena baloratzea errazago izaten da, bai tutorearentzat, bai ikaslearentzat.

Tutoretzetan egindako lana baloratzen dugu eta hurrengo egunetan egin beharrekoa adosten. Momentu hauek erabiltzen dira ikaslearen aurrerabidea aztertzeko: zer moduz doakion proposatutako lana, zeren falta nabaritu duen, zer jorratu behar duen gehiago, zer nahiago duen egin.

Tutorea ikaslearen jarraipenaz arduratzen da. Ikaslearengan ikasten ikasteko premia pizten du, materialak eta baliabideak antolatzen ditu, ikasleekin elkarreragiten du erabakiak hartzen ikas dezaten, burutu duten prozesua eta lortutako emaitzak ebaluatzeko baliabideak ikasleen eskura jartzeaz arduratzen da, eta abar. Halaber, sistema honek dituen zenbait hutsune betetzen saiatzen da: irakasleak ikaslea bultzatzen du liburuak irakurtzera, kalean dagoen euskarazko prentsa erabiltzera, irradi-telebista entzuterara...

Laguntza emateaz gain, adoretzen ere jakin behar du eta, azken batean, nolabaiteko ziurtasuna ere eman behar dio ikasleari. Ikaslea bere kasakoa izatera eta arrisku berriak onartzera bultzatu behar du.

Erantzukizuna ikaslearena eta tutorearena da, biona dela azpimarratu beharra dago. Oreka horretan ez diogu ikasleari erabakitzeke ahalmenik kenduko, baina bai erreferentziak eskainiko.

Hasieran ikasleak formari buruz dauzkaten dudak mahai gainean jartzera etortzen dira tutoretza-saioretara, baina berehala konturatzen dira, kezka horiek beste bide batetik asetzen direnean, emaitza hobea lortzen dela. Faxez edo e-mailez bat-bateko galderei, kezkei eta duede azkar erantzuten zaie, tutoretzaren zain geldituz gero horiek bere testuingurua eta zentzua galtzen dute.

Tutoretza-saio hauek gidatzeko protokoloa oraindik ez dugu osatu, lagun gutxi ibili garenez elkarrekin komentatzeko aukera izan dugulako, unean



uneko kezkak eta aldatzekoak trukatzeko aukera izan dugu. Hala ere, gaur egun denbora eta esperientzia lagun, osatutako sasigidoiari jarraitzen diogu. Eta komeniko litzateke aurrera begira tutore berriei lana errazteko eta aldaketen aurrean norabide bakar bat eskaintzeko asmoz, behin betiko gidoia finkatzea.

Guretzat maiztasun egokiena 8 saioko bat egitea da, dena dela, ikaslearen arabera moldatzen dugu. Astero bi aldiz deitzen dutenentzat nahikoa izaten da, baina astean behin edo maiztasun finkorik gabe deitzen dutenentzat luzeegia izan daiteke saio-kopuru hau. Bestalde, ikasle batzuk oso autonomoak dira eta gai dira, noiz edo noiz bilduta, beren kabuz dextente aritzeko. Beste batzuek, ordea, jarraipen gidatuagoa eskatzen dute.

## **Ikasle-tipologia**

Orain arte guregana hurbildu diren ikasleek ez dute astirik ikasgelara joateko edo bere lanbideak ez die uzten ordutegi arrunt batean aritzen, independenteak izaten dira eta heziketa-maila ona izaten dute. Gehienak emakumeak izan dira, lanbide liberala duten amak.

Aurretik euskaltegietan ikasi zuten eta euskaraz hitz egiteko maila lortu zuten. Dena dela, beren inguruan euskaraz jarduteko aukera gutxi izaten dutenez, euskara ahaztu egin zaie edo besteen aurrean aritzeko lotsa sentitzen dute. 1b mailan gelditu zirenak ere izan ditugu, hala nola alfabetatu behar zirenak. Azken hauentzat telefonoa ez da sistemarik egokiena, baina aurreko bi taldeetakoan artean jariotasuna eta zuzentasuna asko hobetu da.

Oso helburu bestelakoak izaten dituzte: oposaketak gainditzea, lanean euskaraz aritzeko gai izatea, seme-alabekin hitz egitea, ikasi zutenetik pixkanaka-pixkanaka ahaztu duten euskara-mailari bultzada bat ematea. Interesak ere askotarikoak dira eta horrela batzuen nahia lanaren ingurukoa izaten da eta besteena, aldiz, lana izan ezik, beste edozein gai. Bakarkako saioak direnez, nahiak asebetetzea errazagoa da, eta gehienetan saioak ikasleen eskaeretara egokitzen dira material berezia prestatuz, bere lanerako, bizitza sozialerako, norberaren interesetarako.

Deia egiteko, gehienek lantokiko telefonoa erabiltzen dute eta bakarrik egoten dira gelan edo bulegoan. Hasierako saioetan ari diren tokietan norbait sartzen bada isilik geratzen dira edo gaztelaniaz erantzuten diote, baina bere buruarengan konfiantza hartzen duten neurrian, honekin ere euskaraz egiten dute eta horrek erraztu egin du geroago ere inguru horretan euskaraz egin ahal izatea.

Bukatzeko esan dezagun, sistema hau ez dela bere lana telefonoz egin behar dutenentzat bakarrik, baizik jariotasuna eta zuzentasuna hobetu nahi dutenentzat batez ere.

## **Ebaluazioa**

Ebaluazioa ikas-prozesuaren atal bat da; horretan sistematikoki informazioa jaso, antolatu eta interpretatu dugu, akatsak zuzenduz eta ikas-prozesua arteztuz.

Aztertu nahi duguna, horretarako egokienak izango diren jarduerak eta helburuekin bat datozen zuzentzeko irizpideak aldeztu aurretik finkatu behar ditugu.

Ebaluazioa benetan formatibo edo hezitzailea izateko beharrezkoa da ikasleak bere emaitzak ezagutzea eta hauekin batera datozen erabakiak hartzea: helburuak zehaztu, berarentzat sistema egokia den baloratu, lan egiteko modua aldatu, errekuiperatzeko planak diseinatu, eta abar.

Honako hauek ebaluatzen ditugu: ikaslearen hasierako ezagutzak, bere ikas-prozesua, lortutako azken emaitzak, irakasleak erabilitako prozedura, erabilitako materiala, programazio bera eta ikas-prozesuan parte hartzen duten faktore guztiak; kasu bakoitzean informazio desberdinak lortu beharko ditugu.

Etengabe ebaluatzen dugu; ikastaroaren hasieran, irauten duen bitartean eta bukaeran, baina xede diferenteekin une bakoitzean. Lortuko dugun informazioa ere desberdina izango da.

Ikaslea lehenengo tutoretzara etortzen denean, lehenengo deia egin aurretik, berarekin batera egiten dugu diagnosis. Ikaslearen maila eta lortu nahi dituen helburuak zedarrizten saiatzen gara.

Ikaslearen informazioa ahalik eta gehien lortzeko balio digu, bere historia, bere zailtasunak, bere interesak, hizkuntzarekiko duen jarrera, eta informazio hau abiapuntua izanda, programazioa bere beharrei egokitzeko.

Askotan lehenengo elkarrizketa honekin ez da nahikoa eta horretarako prestatuta dauzkagu lehenengo bi saioak. Bertan proposatzen zaizkien lanak errazak dira, edozein mailatan egiteko modukoak: bere burua aurkeztu eta lagunekin planak egin. Ikasleak bere ekoizpenarekin eta irakasleak bultzatuta, jartzen du zailtasun-maila. Egin daitekeena eta lor dezakeguna baloratzeko baliagarria izaten zaigu, bai irakasleoi (bere kabuz gai berri batekin hasteko gai da, erabiltzen dituen formak egokiak dira, edozein galderari aurre egiten dio, elkarrizketaren haria mantentzen du, akatsak, erabiltzen dituen makulu-hitzak), bai ikasleari (erraza suertatu zaio, gaia prestatzea asko kostatu zaio, zenbat denbora pasa du erantzun arte, isiluneak).

Helburuak zehazteko baloratu behar dugu hizkuntza zer egoeratan erabiliko duen eta ondorioz, egoera komunikatibo horri aurrera egiteko zer behar dituen: zein gizarte-rol darabilen usuen, zer gaiz hitz egingo duen, zer jardueratan hartuko duen parte, eta abar.

Ikaslearen profila ere ezagutu behar dugu, bere ikas-estiloa, hizkuntza ikastearen aurrean dituen usteak eta itxaropenak, aurreko esperientziak, ikasteko ohiturak. Hitz batean, bere betebeharrak subjektiboak.

Ebaluazio jarraituan ikasleak eta tutoreak hartzen dute parte. Hilabetean behin edo tutoretza egiten dugu eta honetan lan egiteko modua, erritmoa, proposamenak, zailtasunak, aurrerapausoak, egindakoa azken batean eta egin beharrezkoa negoziatzen da. Bestela esanda, ikastaroan zehar jakin behar dugu ea gure ikasleek aurrera egiten duten, motibatuak dauden, erritmoa egokia darabilten, helburuak markatutako epeetan lortzen diren, ikaslea bere aurrerapenaz ohartzen den eta zerk bultzatzen duen aurrera egitera, etab. Ebaluazioaren atal honek balio hezitzailea du eta beharrezkoa den gutzia aldatzea ere bideratzen du.

Prozesu honetan erabiltzen dugun bigarren tresna ikasle bakoitzaren karpeta da. Horretan ikaslearen informazio guztia jasotzen da: programatu-

takoaz gain, bidalitako zuzenketak, agindu eta jasotako lanak... Tresna baliagarria da tutoretzak aurrera eramateko, bertan agertzen baita ikaslearen aurrerabidea. Tresna hauen bidez ikasleak etengabe ditu eskura bere ibilbidearen berri, informazioa eta ebaluatzeko tresnak. Ezinbestekoa da, bestalde, irakasle batek baino gehiagok parte hartzen dutelako, eta non-bait jaso eta bateratu behar dute ikasle horri buruz dagoen informazioa. “Eguneroko” hauek erritmo-aldaketak, funtzio bereziak lantzerako eta abar egitera eramaten gaituzte.

Lehen aipatu dugun bezala, ariketa asko nork berea zuzentzeko eginak daude, beraz, ikasleak berak ikusi behar ditu izan dituen zailtasunak, oztipoak...

Gure asmotan dago telefono-saio hauek grabatzea, edozein unetakoa entzun eta aurrerabidearen berri izateko. Hala ere, hasieran errazena zirudien arazo eta buruko min handiak eman dizkigu, eta oraindik ere ez dugu lortu sistema on bat saio hauek kalitatez grabatzeko.

Ikasle hauek gehienetan helburu espezifiko bat izaten dute. Horixe izaten da gure “ebaluazio sumatiboa”, karpeta gain proba idatzirik egiten ez diegulako.

## **Erronkak**

Sistema honetan entzumenaren hankamotz gelditzen da. Ikasleak bere alde-tik ezer jartzen ez badu, irakaslearen ahotsa besterik ez du entzuten. Hasieran entzun-ariketak prestatzen saiatu ginen, baina arazoak izan genituen: aurretik prestatu behar zena ahaztu egiten zuten edo zinta galdu edo garaiz ez jaso (batzuetan hurrengo ariketak ere, zuzenketekin batera bidaltzen ditugu). Gaur egun trebetasun hau lantzeko irati-telebista erabiltzen dugu, eguneko albisteak edo bezperako saioen bat.

Tutoretzetan eguneroko zereginetan euskaraz dauden baliabideak ahalik eta gehien erabiltzera bultzatzen ditugu. Dena dela, ezin dugu behartu ikasleak nahi egin ez duen zerbait egitera.

Lehen ere saioen grabazioak aipatu ditugu. Arazo mekaniko honi ez diogu irtenbiderik aurkitu oraingoz eta oso tresna garrantzitsua da ikaslearen aurrerabidea baloratu ahal izateko.

Talde arruntetan ari diren irakasleak txandakatzea zaila izaten da: deiak ez dira beti egun eta ordu berean egiten, eta lagun asko honetara dedikatzea ere ez da errentagarria. Bestalde, irakasle arruntak noiz edo noiz saio hauek egitea komeni izaten da, ez ikaslearentzat soilik, irakasleen formaziorako ere bai, ohiko jardueran gainetik pasatzen ditugun zenbait elementu birplanteatzera eramaten baitu.

Beste erronka handi bat beren artean ere interakzioa bultzatzea da. Taldeetako ikasleek eskola-saioa bukatzen denean, interakzioan jarraitzen dute, nahiz eta irakaslea egon ez. Telefonoz ari direnek ez dute inongo harremanik beren artean. Agian telefoniak gaur egun ematen dituen aukerak aprobetxatu behar-ko genituzke interakzioak errazteko (hiru lagunaldi berean hizketan) edo noiz edo noiz tutore batek bere ikasleei kafe bat hartzeko deia egin.

## ZU NOR ZARA?

*Deitu aurretik:*

Irakasleak horrelako galdera batzuk prestatuak ditu zuri egiteko (ez hauek, jakina!):

Orain dela gutxi gertatu zaizun gauza barregarriren bat kontatu.

Zer aldatuko edo berrituko zenuke Donostian?

Zer gustatuko litzaizuke ikastea?

Animalia izateko aukera bazenu, zein izatea gustatuko litzaizuke?

Deitu aurretik zuk ere batzuk prestatu, horrela, irakaslearen datu gehiago izango duzu.

---

*Telefonoz:*

Zeintzuk dira zure galderak?

---

*Deitu ondoren:*

Irakasleak egin dizkizun galderen arabera, nola definituko zenuke zeure burua?

(Deskripzio txiki bat idatzi)



## ZU NOR ZARA?

*Helburua:* Elkarren berri edukitzea

*Galdera posible batzuk:*

Zein da gehien gustatzen zaizun kirola?

Zein da zure hobbyrik gustukoena?

Nola deskribatuko zenioke Donostia lau minututan kanpotar bati?

Zein izan da zure bizitzako egunik zoriontsuena?

Nori kontatzen dizkiozu zeure sekretuak?

Nolakoa da zure ametsetako printzesa/printzea?

Non bizi zinen lau urte zenituenean?

Zure izena aldatzeko aukera izango bazenu, zein aukeratuko zenuke?

Zein da zure heroirik gogokoena? Zergatik?

Zer ez zenuke inolaz ere ikasiko? Zergatik?

Zoriontsu egiten zaituen gauza bat aipa ezazu.

Zein da zure teleaiorik gogokoena? Zergaitik? Eta gehien gorrotatzen duzuna?

Munduko edozein bazterretan urtebete igarotzeko aukera irabaziko bazenu, zein toki aukeratuko zenuke? Zergatik?

Zein da sukaldean hobekien prestatzen duzun jatekoa?



## ELENA FRANCIS

### Deitu aurretik:

Gaur ELENA FRANCIS andereñoaren papera egitea tokatuko zaizu, aholkulari lana alegia. Joan den astean entzule baten ondorengo eskutitza jaso zenuen.

Elena maitea, zure entzule sutsu bat nauzu. Nire arazoa kontatzeko idazten dizut, handi-handia baita. Gainera oso kezkatuta nago. Ni gizon gaztea naiz. Hogeitamar urte dauzkat eta orain dela bi aste neska batekin ateratzen hasi naiz. Duela bi egun ohetik jaikitzean sudurraren puntan garatxo handi bat neukala konturatu nintzen.

Nire neska-laguna oso fina da eta ez du inork ni itxura honekin ikustea nahi. Lagun hau galtzen badut, bizia ere galduko dut. Zer egin dezaket? Mesedez, erantzuna azkar behar dut. Mila esker.

Prestatu entzuleari emateko erantzuna. Gogora ezazu zure izena daramaten zenbait produktu saltzen dituzula, edozertarako balio dutenak.

### Telefonoz:

Gaurkoan Elena Francis zarenez, irratsaioa egin zuzenean:

- 1.- Irratsaioaren aurkezpena egin.
- 2.- Eskutitza idatzitako entzuleari aholku eman irratiz.
- 3.- Telefono-deiei hasiera eman, entzuleek beren arazoak planteiatzeko.

### Deitu ondoren:

Orain zu izango zara arazoak dituen. Elena Francis idatziozu zure arazoaren berri emateko eta aholkua eskatzeko.



Data:

**ELENA FRANCIS***Helburua:*

Aholkuak ematea

*Telefonoz:*

Lehenengo, bera Elena Francis esataria denez, irratsaioaren sarrera egin dezala zuzenean arituko bailitzan.

Bigarrenik, bere orrian idatzirik agertzen den arazoaren aurkezpena egin eta aholkua eman diezaiola arazoa planteatzen dion mutilari, berau irratia entzuten ari dela pentsatuz.

Hirugarrenik telefono-deia egiteko aukera eman diezaiela entzuleei, beren arazoak planteatzeko.

- Hona hemen zuk, entzule gisa planteatzeko arazo posible bat:

Senarrak duela gutxi auto istripu larria izan. Ondorioz paraplejiko geratu. Toledoko erreabilitazio zentro batean lau hilabete. Asteburu batean senarraren anaia bisitan joan, zu nahikoa gaizki zeunden, afaltzera elkarrekin joan, ondoren hotelera eta...

Bi hilabete pasa ondoren haurdun zaudela konturatu zara, senarrari esan, ez esan... Zer egin beharko nuke?

Irratsaioarekin bukatzeko eman diezaiola amaiera, hau da, agurtu dizala entzuleak.

*Beste galdera batzuk:*

Bere garaian ba al zuen Elena Francisen berririk?

Ondoren honelako saioak komenta daitezke. Telebistan, irratian, aldizkarietan...

Berak nori eskatu ohi dio aholku?

**Data:**

## HOROSKOPOA

### Deitu aurretik:

Ondorengo orrialdean HABE aldizkariko 300. aleko horoskopoak dituzu, hori izango baitugu gaurko gaia.

Hitz egiten hasi aurretik bete ezazu beheko laukia. Taula honetan asteko egunak ipini ditugu. **Geminis** zeinua irakurri ostean bete ezazu taula egunero zer egin behar duen adierazteko.

**Oharra:** kontuan hartu taulan leku gutxi dagoela idazteko eta esaldiak ezin direla osorik ipini. Bestalde, ez du aukerarik ematen asteko egun guztiak betetzeko. Beraz, hutsik geratzen diren laukian **Sagitarius** zeinuan jartzen duena egin beharko du.

astelehena						

### Telefonoz:

Taula aurrean duzula Geminis pertsona horrek zer egin behar duen adierazi.

### Deitu ondoren:

Euskaraz eman horoskopo hau eta ipini zein horoskopo den

**Placeres** en **astiazkera** y tus seguna ostirala larunbata igandea  
 amores van como locos. Tanto si  
 estás disponible como si tu cora-  
 zón está ocupado, vas a disfrutar  
 de unos días placenteros.  
 Profesionalmente, aplícate mucho.



Data:



## horoskopia

### ARIES

Ez ibili inor engainatu nahian. Pertsona txintxoa zarela behin eta berriz errepikatu arren, zure aurpegiari begiratu besterik ez dago **maltzurkeriak** egitea zein atsegin duzun igertzeko. Moja jantzian ere ez zenuke santu-itxurarik hartuko!

### CANCER

Zeure buruaz **harro zaude** eta hori ona da, baldin eta besteen gainetik zaudela pentsatzen ez baduzu. Zeugan daukazun konfidantza aprobetxatu eta epe laburrean lan-eskaintza **oparoa** iritsiko zaizu. Etorbizunak kolore arrosaz jantzitako atek irekiko dizkizu.

### LIBRA

**Egiezu aurre** aldaketei aurpegi onez. aulkian eseri eta gauzak noiz aldatu zain geratzeak ez ditu konponbide errazik ekarriko. Zu zara itsasontzia gidatu behar duena; baina **ekaitza** eta itsasoa haserre daudenean ere, igeri egiten ikasteko ura behar da.

### CAPRICORNIO

**Lurrikarak** bikoteen artean ere gertatzen dira. zuri antzeko zerbait gertatuko zaizu eta irtenbiderik ez dagoela irudituko zaizu. Lasai, hartu pazientzia apur bat eta garbi hitz egin. Sekretutxoren bat gordetzea ez da delitua. Nork bere intimitatea ere mantendu beharko du, ezta?

MALTZURKERIA.-*Argucia*  
HARRO EGON.-*Estar orgulloso/a.*  
OPARO.-*Abundante*  
EGIEZU AURRE.-*Hazles frente.*  
EKAITZ.-*Denboralea. marejada*  
LURRIKARA.-*Terremoto.*  
LURRIKITU.-*Zirriztua. Rendija.*  
MAITALE.-*Amorantea. Amante.*

### TAURUS

Asteburuetan diskotekara joan eta dantza egiteari laga gabe orde-pare bat pasatzea ongi dago. Halere, astean zehar kirol piska bat egingo bazenu, gorpuztak eskertu egingo luke. Dezibelioen martxa baino askoz osasuntsuagoa da igerilekuan lasai-lasai kilometroa egitea.

### LEO

Kupido jo eta ke arituko da datozen egunetan. **Zirrikitu** guztietatik aterako zaizkizu **maitaleak** eta zuk aukeratu baino ez duzu egin beharko. Hori bai, ez pasa denbora gehiegi **bitxilorea biluzten** ez baduzu nahi **geziaren** norabidea aldatzerik. **Kanpolarrosa** izango zara.

### SCORPIO

**Jatuna** zara oso. Txuleta errea patatekin, sagar-tarta eta kafe kompletoa gustatzen zaizkizu. Hori bai, kirol arrastorik ez duzu praktikatzen eta izerdia zer den ere ez dakizu. Gero, pisuak horren zerbaki haundiak erakusten dizkizunean, ez inorekin haserretu.

### AQUARIUS

Zu bezalako kalekume batek sekula santan ez du ikasiko behiak **jezten**. baserrian jaiotzea ez da nahikoa umetan hiriburuko eskoletan ikasi duenarentzat. nola esan gurasoei bulegoa eta ordenadorea nahiago dituzula belar **batzea** baino? Asmatu egin beharko duzu!

BITXILORE.-*Margarita.*  
BILUZTU.-*Desnudar.*  
GEZI.-*Flecha.*  
KANPOLARROSA.-*Generoso/a con los de fuera.*  
JATUN.-*Asko jaten duen pertsona.*  
JETZI.-*Ordeñar.*  
BATU.-*Bildu. Recoger.*

### GEMINIS

Asteburuetan jantzi kolore berdea. Astea itxaropentsu hasteko modu ezin hobea da. Asteartean, berriz, ez jan okelarik, arin-arin ibiliko zara. Asteazkena eta osteguna aprobetxatu itzazu armairuak **atundu** eta etxea garbitzeko eta ostiralean masajistarengana joan.

### VIRGO

**Norbait adarjoka ari zaizulakoan zaude.** Notatxo anonimoak postontzian. Sinadurarik gabeko lore-sortak. Eta maitasun-mezuak **erantzungailuan.** Ez larritu, asko maite zaituen pertsona bat bere santimenduak azaltzen ari zaizu. Zuk uste baino gertuago daukazu.

### SAGITARIUS

Gaua izarrei begira pasa eta desioak eskatu. Seguruena ez dira erdiak ere beteko, baina ohean lo egin ezinik ardiak kontatzen egotea baino askoz entretienigarriagoa behintzat bada. Eta nork daki zaparradaren batek ez ote dizun eskatutako ametsak ekarriko!

### PISCIS

**Ezbeharren** garaia pasa da. Gaurtik aurrera dena aterako zaizu ondo baino hobeto. Osasuna, dirua eta maitasuna barra-barra izango dituzu. Muki-zapiak gorde eta atera zetazko foularrak. festarik festa dibertitzeko ordua iritsi zaizu. Keinua: barrea.

ATONDU.-*Txukundua.*  
NORBAIT ADARJOKA ARI ZAIZULAKOAN ZAUDE.-*Norbait adarjoka ari dela uste duzu.*  
ERANTZUNGAILU.-*Contestador.*  
EZBEHAR.-*Zoritxarra. Desgracia.*

(HABE 300. aletik moldatua)



Data:

## HOROSKOPOA

*Helburua:*

Instrukzioa eta iritzia ematea.

*Telefonoz:*

Geminisak zer egin eta ez egin kontatu ondoren solaskideen horoskopoak irakurri eta elkarri eta komentatu.

Irakurtzen al ditu horoskopoak.

Zergatik agertzen dira egunkari eta aldizkari mordoan?

Zein da bere horoskopoak?

Zein ezaugarri ditu?

Bat al dator bere izaerarekin?



**Data:**

## **Bibliografia**

- Cassany, D., Luna, M., Sanz, G.** 1994. *Enseñar lengua*. Barcelona: Graó.
- Fernández Pinto, J.** 1999. Tutorías virtuales. Espéculo 11 (aldizkari elektronikoa). [www.ucm.es/info/especulo/numero11/tutorias.html](http://www.ucm.es/info/especulo/numero11/tutorias.html).
- García-Caeiro, I. et alii.** 1986. *Expresión oral*. Madrid: Editorial Alhambra S. A.
- Martín Peris, E.** 2000. La enseñanza centrada en el alumno. *Frecuencia L* 13: 3-29.
- Nunan, D.** 1996. *El diseño de tareas para la clase comunicativa*. Cambridge University Press.
- Reyzabal, M. V.** 1993. *La comunicación oral y su didáctica*. Madrid: La Muralla.